Gauzak Gora

Ala dira otsak "Dana gora, dana gora doa" esanaz ateratzen da jendea denda guztietatik. Buruz ikasitako leloa dirudi. Ohiturazko esaera.

Ez da ez esate aldera esan ohi dan leloa. Ehuneko amairu-ta erdi igo dira esnekiak. Ehuneko amaika aragia. Ehuneko amairu janari-edari eta gantzukiak. Ehuneko bost autoak.

Gasolina eta tabakoa ere igoko ote diran zurrumurroak ba dira. Eta bideetako ibilliak besterik gabe.

Au guzia urte aro egokian. Eguberri jai alaien pozean arkitzen da jendea. Diru pixka bat botatzeko aldarte onean. Otordu gozoak egiteko urte sasoican. Esku-erakutsiak eskeintzeko egunetan. Jantzi eta jostaillu berriak erosteko garaican. Soldata zorro potzoloxeagoa jasotzen dan illean. Dirua alferrik txautzeak ainbeste min ematen ez duen unean.

Garai ona eta aitzaki egokia, beraz, gauzak garestitzeko. Buruausteak batera utzi eta egun batzuk bapo igarotzeko ametsetan dago jendea. Ez dago burrukarako, lasaitasunerako baizik. Ez dago lanerako, festarako baizik.

Ongi daki saltzailleak eroslearen berri. Au da illik onena gauzak garestitzeko. Eta gehiago ez da izanen il onik merkatzeko.

Urtero agindu da Eguberriak igarotakoan gauzak merkatuko direla. Ez dira, ordea, sekulan lehenera bihurtu.

Eta jakiña lehenera bihurtuko direlakoan egingo dituzte nagusi-langilleak lan eta soldata tratuak. Gora igoko dira soldatak, noski. Baiña soldata eta erosi behar diran gauzen tartea gero eta aundiagoa izango da zalantzarik gabe.

Aurten izango ote da koska au berdinduko duen iñor? Esku daukatenek izango ote ortarako gogorik eta kemenik? Ostera merkatuko ote dira jai auen zorabioz igo diran gauzak?

Ala ez balitz eroak ere igerriko dio, noski, urte zail, neketsu, illun eta burrukalarian sartzera goazela. Langille eta nekazarien eziñak gehitu eta langille eta nagusien arteko burrukak ugaritu eta gogortuko diran urtean ain zuzen ere.

Eta arazo onek bai al du onezko kopon-biderik? Ba du, noski. Ahaldunek eta zaldunek nahi izan behar. Baiña...

Onez edo txarrez. Onez ezin danean txarrez konpondu nahi izaten ditugu. Eta ain gaizki bizi ez geranok txarrezkoa ez dela biderik onena eta egokiena esan ohi dugu geuron bizibideari ondo eutsiaz.

Baiña luzaroko eziñak berekin darama txartzea. Nola edo ala ezin ortatik atera nahi izatea.

"Eibartarra" ri gutun agiria

Agur aberkide ezezagun hori:

Zure artikulu mamitsua irakurri dut Z. ARGIA-n (1971-XI-28); eta zure kezkak noraino ulertzen ditudan azaldu beharrik ez dago. Zure kezkak, «Eibartarra», eneak dira; eta, sinetsita egon, euskaldun bihotza dugun guzion kezkak dira.

Utz dezagun alde batera Eibarko euskera jatorra den ala ez den, eta sasi-problema horiek. Eibarko euskera oso jatorra da, euskalki guziak bezala (zure artikulua lekuko); bizkaieraren adarra denez, bestetik, puntu askotan oso interesgarria; eta teknika-sailean, azkenekorik, oso kontutan hartzekoa. Euskerarik txarrena (txarra den bakarra hobe) ERDARA da: hauxe da oraindik euskaldunok sinetsi nahi ez dugun egia garbia.

Bestek hunkitu nau halere zure artikuluan. Eibarko haur-jolasak aipatzen dituzularik, hau diozu: «Orduango gaztiak euskeraz bizi gi*ñan». Hauxe da, ene ustez, zure* artikuluaren oharrik gogoangarriena. Egia latza bait da! 1940ren inguruan, «juan dan gerra inguru-txuan bertan» zuk diozunez, Eibarko haurrak euskaraz egiten zituzten beren jolasak. Eta gaur ez. Harrez gero 30 urte pasa dira. Eta, zure hitzak gogoraziz, «ni eta neu*re sasoikuak izan gariala euskeraz* azkenengo jolasak egin ditxugunak kalian». Karkulu txiki bat eginez, hau da ondorioa: 40 urtetatik gorako eibartarrak direla euskeraz jostatu diren azkenekoak.

Hau, ordea, ez da Eibarren bakarrik gertatu. Aldaketa berbera ikusia dut Donostian bertan, Antiguako hauzoan. 1938an, oso ongi gogoratzen naizenez, Aieteko eskolakide batzuk izan nituen «Ntra. Sra. de Lurdes» zeritzan hauzo--eskolan; eta lagun haiek euskaraz jolastutzen ziren beren artean Antiguako eliza ondoko enparantzan. Hots, nik neuk ere ia pasa berriak ditut berrogei urteok.

Bestalde zerorrek diozun bezala esan nezake nik ere, «gerra ingurutsuko» antigutar mutilok, nahiz erdaraz ari izatean, «a irtenes», «a bertan txulo», eta abar, jostatzen ginela; «guitipera» bat prestatzen genuela, eta Txokolatene eta Marbil-berriko aldapetan erabiltzen; eta frontoian, «azken» eta «azken-hurren» eskatzen genuela partidak hasterakoan.

Ia gauza bera esan daiteke Euskal Herri guzian.

Lapurdi, Baxenabarre eta Ziberoa osoetan ez dago gaur INUN haur-talde bakar bat euskeraz jostatzen ari. Nik ez dut bederen horrelako herrixka ttipietan ere. Iparralde guzi-guzian gaur haurrak frantsesez jostatzen dira. Baina aski da hazpandar edo garaztar batekin mintzatzea, orain dela 20 urte horrelakorik gertatzen ez zela jakiteko.

Euskal dialektologiari buruzko izkribuak irakurtzen dituenak, era berean, ondorio berbera aterako luke Nafarroa (*Garaia*)ri buruz. Behin eta berriz idatzi denez. Altsatsuan, Eugin, Otsagabian, Lekunberrin, eta beste hamaika herritan, «adineko jendeak ba daki euskeraz; baina gazteek ez». Dakienak ez daki geroz ikasia duelako: euskeraz ikasteko eta jabetzeko kezka eta benetako nahia oso joera *berriak dira Euskal Herrian. Adi*neko jende hori, beraz, euskal giroan murgilduta bizi zelako gertatu da euskalduna; eta haurtzaroan euskaraz jostatu den azken euskaldun belauna da.

Ez dago, beraz, esaterik: «Tira, tira! Ez hileta jo! Zaharrek beti esan dituzte horrelako tentelke*riak». Ez. Guhauri tokatu zaigu kin*ka berezi larri hau ezagutzea: ez dute gure aurrekoek ezagutu, eta gure ondokoek ere ez dute ezagutuko. Azkeneko euskal jolasketa jatorrizkoak (alegia, pizkunde-nahi gabeak) geuz ezagutu ditugu. Guganainoko Euskal Herria gauza bat izan da; eta gugandikakoa, nahi-ta*-ez, beste gauza bat izango da:* etendura ondokoa. Negar egin daiteke, ala farre; baina hori horrela da. Etendura hori ezin da ezabatu. Zuk ongi dazkizun arrazoinengatik, horretara heldu gara, eta ez-ikusia egiterik ez dago.

Gauza bat adierazten du honek: jatorrizko euskalkien urteak ahitu *direla. Haurrak ez dira gaur eus*karaz inun jostatzen, jatorrizko euskalki biziak, ahoz aho gugana iritsi direnak, plazaren mailan bederen agortu direlako.

Gauza bera gertatzen zaigu gaitzizenekin. Baita ikastoletan ari diren haurrek, erderazko gaitzizenak jartzen dizkiote maiz elkarri: «cabezotas», «gordito», eta abar. Joera berbera irainetan: erdaraz botatzen dituzte askotan euskaraz ari diren haurrek.

Ba dago zertan amets eginik Ohenarte-ren paperak gogoratuz: XIV-gn mendeko baserritarrek, euskal deiturak ETA EUSKAL GAITZIZENAK erabiltzen bait zituzten barra-barra Aierbe-ko eskualdean (Hueskan beraz!). Eta ba dago zer bildurik eta ikastoletan erakatsirik Toribio Altzaga-ren irain-lerrokada harrigarrietan!

Euskaraz jolasten ziren haur--mordoen katea moztuta gelditu da. Euskalki jatorren isuria agortu. Beste modu batera esateko, zalantza, edo erabaki-beharra, ez da gaur ia Euskal Herrian euskalkien hildoari helduko ote diogunez; baizik-eta ia Euskal Herrian euskara batuaren kate berri bati helduko ote diogunez, ala erdara batuarenari.

Euskara batua artifiziala da, laboratorio-usainekoa, hotza. Euskaraz hazi diren GUZIEK aitortzen dute hau. Nola ez aitortuko? Euskara batua, «euskera-berri» da, pipergabea, motela, gexa, garo-usainik gabea. Eta euskara batuaren alde gaudenok dakigu beharbada inork baino hobeto.

Nik neuk, esate baterako, aski dut «fan» entzutea (joan), «baikotza» (bakoitza), «aitxajauna» (aitona), «*amandria*» (*amona*), «*flatela*» (platera), eta «larua» (horia), neure burua haurtzaroko urrinez beterik atxemateko, Alzaa-kaleaz, San Martin-ez eta Arantzazuz oroitzeko, eta Udalaitz-ko isla zorrotza neure barrutik ezin baztertzeko. Oinati-ko euskara nereago da besteak baino; eta hango hitzen «de*notación» delakoaz gain* (= esan--nahi soila), «connotación» gaitza nabaritzen dut (= sendimendu-kutsua). Euskera batuaren ultrek (1920 koek eta... 1971 koek!) ez dute minberatasun hau ulertzen, erdalkumeak direlako. Euskera batuaren kontrako BIHOZKADA BATZUK (ez denak, kasu!) ulertu egin *behar dira, euskal bizian eta bi*bentzietan finkatzen direlako. Mitxelenak, esate baterako, ez du gure arazoaren aurpegi ilun motz hau behin ere izkutatu. Hastapenetan euskera batua hotza izango da nahi-ta-nahi-ez, eta hotz izango zaie euskaldunei hain zuzen: euskaldunago izan, eta hein batez arrotzago atxemango euskera batua.

Baina problemak eta euskararen kinka gaistoak ba dute alderdi egoki bat gutxienez: haurren erdal jokoek argi-eta-garbi erakusten dutenez, urte gutxi barru euskalkienak egin duke. Hautakizuna ez da gaur, beraz, eta esana izan da lehenago, euskalkiak / erdalkiak, EUSKARA BATU BAT / ERDARA BATU BI baizik. Ez dago honetan hirugarren biderik.

Ez da bestalde euskalki bizien alderdi ona larregi hanpatu behar. Euskalkien egoerak honetara gaitu. Ez zen beraz horren ona. Eta euskararen arloa dialektolarientzako anitz mugakeria eta murruzkeriaren iturburu izan da. Denetan larriena hau: denok euskaldun izanik ere, elkar konprenitzekotan erderara jo beharra. Gure iduriaren ina! Geure burua ulertzeko kanpora jo!

Euskalkien amaia begien aurrean dugu. Beste lege-egoera batean ere ez lukete euskalkiek gaurko gizarte-moduan iraungo. Eibartarrak gaur Zarautzen pasatzen du igandea, eta bilbotarrak Gipuzkoako irratia entzuten. Are gehiago telebistan eta liburuetan. Lehen ordubeteko tarteak 6 kilometro zituen, gaur 80 km. Ez ditugu haurrak herriko enparantzetan bertako euskaraz mintzo jostatzen entzungo. Hau seguru da. Baina ikastola berrietan ikusten ditugu alai Otsagabian eta Bilbon, Donapaleun ea Gastehizen, Arrangoitzen eta Tudelan; gero eta euskara batuagoan ari. Ez da hau itxaropide makala!

Euskalkien Euskal Herria, banderizoen segida, Beotibar-en aztarna, jauntxokerien eta arloterien irudia, hiltzorian dago. Bil ditzagun azkar, eta osoki, euskalki guzien muna, odola eta giharra; eta osa dezagun ahalik eta azkarrenik euskaldun guziontzako euskara batua eta zalua: inoiz baino zehatzagoa, inoiz baino landuagoa, eta inoiz baino maitatuagoa. Eta kantari berrien eta burrukari gazteen aireetan oraturik, laister errotuko da gure haranetan, eta berotasuna irabaziko: biziak ez bestek eman dezakean sustraia. Eta Euskal Herri elkartu, anaikor eta berri baten tresnarik aproposena eta indartsuena bihurtuko da.

Sinetsita egon zaitez, «Eibartarra» maitea, gure herriak horretara galduko dukeana baino aisa gehiago irabaziko duela.

Honenbestez aski. Eutsi! Biba eibartarrak!

Eta besarkada bat

LARRESORO

HEZI JOSTAILUAK

Heziketa lanean ari garenok, ongi ikusi ahal izan dugu, ikusi ere, haurrez osaturiko talde batekin lan egitea ez dela horiek gela batean edukiaz zenbait lege bete eta denbora pasatuaz, baizik, sortze, ekite eta askatasun ahalmenak landuaz hezitzea. Honek, esku artean beharrezkoen dugun materialaren premia du sortu. Hara non, jostailu hezitzaile, esku-lan eta material didaktikoz osaturiko denda sortzen den. Lehen esanari jarraituaz, heziketak sorturiko zenbait premiari erantzuteko denez gero, Haurridek bere eginkizun jotzen du, bai irakasle eta gurasoekin ere ahal den heinean pedagogia lan bat egitea, alegia, ikastolako eta etxeko heziketa lana batuz joatea.

Hona hemen aurten gurasoekin egiten ari den lanaren haria:

HAURRA EGIA ZALE: ERREGE KAMPAINA

Egian hazi egian hezi eta egiaz jokatzea da guztion nahia. Hitz ederrak hauk eguneroko bizitzan ahoz--aho erabiltzeko; ez hain ederrak ordea, gure ekintza soiletan hala betetzeko.

Gure haurrak egia bidean hezi nahi baditugu, ezin hainbeste xehurturik agertzen dauzkiogun egia lebrekeria eginaz jarrai. Ipuin bigustiek, haurraren irudimena nahasi besterik ez dute egiten.

Haurrari zuzentzean egiaz behar dugu jokatu. Hona bada lanean hasteko une egokia, gerturatzen ari den errege garaia. Lehenik hauxe bada: ezin inola ere onar jostailuak erregek ekarri dituztela esaterik, baizik, egi-bide bat bilatu eta aurkitu behar dugu. Hain ulergaitza eta penagarria ote, gure haurra egiaz, aurrez-aurre aurkitzea? Alegia, Jesus Haurtxoaren izenean Belengo artzainek eta erregek egin zituzten oparien oroimenez, egun, adiskidetasun giro batetan, eta bakoitzak ahal duen neurrian elkarri egiten dauzkiogun opariak direla.

Jakina, egiaren azalpena, haur bakoitzak duen adina kontuan izanaz behar da egin. Baina gezurrik inondik inora ere ez!

Egia dela-eta egiaz jokatzen badugu, haurrak gauza asko ulertu ahal izanen luke. Esate baterako, etxeko familiaren egoera; kidekoak direla uste dutenen arteko desberdintasunak... Laster konturatzen dira bai, batek, eskatzen duena eta gehiago eskuratzen duela; besteak edo besteek berriz eskatutako apurra ere lortu ezinik dabiltzala. Egiazko heziketa bat emanaz errealitateaz aurrez-aurre jartzea besterik ez dugu egiten.

Ezin dezakegu, gezurraz jokatuaz hain beharrezkoa den egia uka. Ez eta ohitura-lege bihurtu diren ospaketak haurraren zerbitzuan ez badira, inola ere onar. Ezin urteko pasadizoa, guztiak hala egiten dutela-eta, inguruaren arabera mugiturik, gure ekintza guztiak justifikatu nahi izan.

PROPAGANDAREN ERAGINA

Egia da, baita ere, propagandaren esanera moldatzen ditugula urteko jai guztiak. Egungo komertzioaren ardatz bait dira.

Hurbiltzen ari den «errege garaian», bai zahar, bai gazte eta «haurrak ere ilusio eta itxaropen handiz egon ohi dira opari zai.

Egun irrati eta telebistak esaten daukute zer-nolako tresnak eros: urrezkoak, zilarrezkoak, hala kuerda emate hutsaz ibiltzen diren motor eta panpinak. Zenbait erraztasun ere eskaintzen daukute, zera, plazotan ordainduaz erosi... honela, besteak hainbat gaitezkeala alegia. Gainera, honelakoak urtean behin egin izan dira eta behar dute gure haurrek zorion apur bat ere.

Gure artean honelakoak gertatzen direlarik, garbi ikusten da, opariaren sentidura guztiz galdurik dugula. Ezin, urtean behin ugaritasun handienez haurra pozik jar; gero urte osoan behar du materiala, zeren urte osoan bait da haur, beraz, ugari jolastu behar du, esku--lanak, ipuinak eta zenbait liburu eta tresna, berarekin dituelarik.

Egia esateak bezala zer jostailu eskaintzen diogun jakiteak ere badu garrantzirik aski. Lehenik haurraren beharrak ongi ezagutu behar ditugu eta hauetan oinarriturik jostailuak erosten has. Baina kontuan izanaz hau ere, edozein jostailuk ez duela helburu hori bete ahal izanen, eta benetan bilatu egin behar ditugula. Ezingo dugu goitik behera komertzializaziorik handienean, propagandaren bidez begiak betetzen dauzkigun materialaz orain arte esandakorik bete ahal izan.

HAURRAREN BEHARRAK

Haurrak, adin, egoera eta gertakizun bakoitzean behar desberdinak dituenez gero, aski fijatu beharko genduke eta behar handienari erantzuteko ahaleginak egin. Bere grina, nahikunde, zailtasunak, jakin-mina eta bere eskeak oso kontuan eduki beharko genituzke.

Nahiz guri oso atsegin zaizkigun jostailuak izan, deus esaten ez badiote, haurraren behar horretaz ez garela konturatu esan nahi du. Beraz, badu inportantziarik asko gai honek, eta buru-belarri jokatu behar genduke.

Haurrarentzat beharrezko da baita opor garai osoan zer-eginik edukitzea ere. Zeren, gabonaldean egiten diren oporrak ez bait dira haurraren eskakizunari erantzuteko eginiko zerbait; baizik, programan eraturik dagoen bezala ohitura-legez ematen diren jaiak. Jakina, bai guraso eta irakasleok badugu zer--eginik, baina haurrek errege eguraren zalantza dute eginkizun handienetako bat.

Honela galtzen duen hamabostaldi honek garrantzi handia du haurraren bizitzan. Beraz, garaia da azalezko ospaketa hauek hautsi eta benetasunez jokatzeko. Alegia, Gabon gauean edo, jostailuak eskainiz gero, haurra lantzen eta jostailuak erabiliaz zenbait esperientzia berri egiten ariko da hamabos taldi honetan. Gero, opor egun hauetan eginaren berri azaltzeko gogo handia izanen dute beren adiskideen artean.

Elkarrekin lanak, elkarrekin jostailuak, eta ez da bakoitza berearen gordetzaile izanen ez eta bestearenak ezer onik ez duen ustean ibiliko. Hara, asko konturatu gaberik kidetasunaren oinarri den elkarrekiko lanean hezitzen nola ari diren. Oso kontuan behar dugu, heziketaren bertuterik nagusiena haurra kidetasunean hezitzea dela, honela gizarterako presta dadin.

HAURRIDE

ZERUKO ARGIA

Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.° Burlada-Pamplona).

Donostian: Okendo, 22

Tel. 42.66.66

ARPIDE SARIA:

Berruan	250 pezeta
Korreo batasunetako errietan	300 pezeta
Atzerrietako beste errietan	320 pezeta
Aldez Aurrez gaidetu	
Salmetan (ale bakoitza)	6 pezeta